AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

456

AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 8koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan hutsik dauden notariotzak betetzeko lehiaketa arrunta ebatziz notarioak izendatzeko dena.

Hutsik dauden notariotzak betetzeko instruitutako espedientea ikusi da. Notariotza horiek, bestalde, 2012ko urriaren 15eko Ebazpenaz (2012ko urriaren 24ko Estatutuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) deitutako lehiaketa arruntean sartu ziren, eta Autonomia Estatutuko 10.22 artikuluan agindutakoarekin bat eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko Notariotzak betetzeko, ondoren aipatzen diren notarioak izendatzea:

Laudio/Llodioko notariotzarako (aurreko lehiaketan emateke geratu baitzen – Marqueño Ellacuría jaunaren protokoloa), Ruperto Isidoro Martínez Martínez jauna, Bilboko notarioa.

Gernika-Lumoko notariotzarako (Emilio Fernández-Valdés Cruzat jaunak erretiroa hartu duenez, Igor Ispizua Omar jauna, Markina-Xemeingo notarioa.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 8a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.